



MISIOA

Bazkide eta bezeroen (batez ere partikular eta enpresen) finantza-beharrei erantzutea da kreditu-kooperatibaren helburua.

Zentzu horretan, gestioaren eta zerbitzuaren kalitatea lehiakortasunerako elementu bereizgarritzat hartzen du, efizientzian eta errentagarritasunean toki egokian egotea eta bezeroak eta bazkideak gogobetetzea lortzeko.

Entitatea MONDRAGON korporazioaren barruan dago, eta korporazioko erakundeen jarduerari laguntza berezia emanaz gauzatzen du, batez ere, gizartea sustatzeko hartuta duen konpromisoa. Halaber, gizartearekiko

konpromiso hori bere jarduera-lurraldearen garapen ekonomikora eta soziokulturalera ere bideratzen du; Euskal Herriaren kasuan, euskarari eta euskal kulturari arreta berezia eskaintzen die.

Misioa betetzeko, Entitateak konpromisoa hartu du bere lan-bazkideen garapen profesionalarekin eta horien artean konfiantzazko giroa sortzearekin, berrikuntza, talde-lana eta bazkideen partaidetza aktiboa suspertzeari begira.

ETORKI-ZUNERAKO IKUSPEGIA

Entitateak Kalitatearen eta Zerbitzuaren inguruko lidergoaren alde egin du apustu.

Horretarako, aholkularitza hurbil eta pertsonalizatua emango du, eta identifikatutako negozio-segmentu bakoitzari bereziki prestatutako produktuak eskainiko dizkio. Ez ditu, halaber, kostuak —egungo posizio bikainari eusteko asmoa du— eta berrikuntza —indar handiz bultzatuko du— alde batera utziko.

BALOREAK ETA INTERES-TALDEAK

Izateko eta jarduteko moduak dira baloreak, eta Entitatea osatzen duten pertsona guztiek gure interes-taldeekiko duten portaeren bidez adierazten dira;

izan ere, pertsonen portaera etikoak oreka iraunkorraren oinarria dira enpresa-erabakietan.